

Atarrabia · Erratzu (Baztan) · Erronkari · Etxauri · Eugi · Gares · Irunberri · Irurtzun · Iruñea · Leitza ·
Lekaroz (Baztan) · Lekunberri · Lesaka · Lizarra · Olazti (Sakana) · Sunbilla (Malerreka) · Tafalla · Tutera

bardokak

2024

Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa

Irailaren 13tik urriaren 26ra



www.bertsozale.eus



Badatoz Bardoak!



2012an sortu zen **BARDOAK**, Nafarroako taldekako bertso txapelketa, herrialdeko Bertso Eskolen sarea indartu asmoz. Orduetik, bi urtean behin antolatu izan da, auzolana eta talde lana oinarrian jarritz. Azken edizioa, 2022koa, salbuespena izan zen, hau, pandemia osteko egoera zela eta, egun bateko formatuan ospatu zen, *Bardo Eguna*. Aurten, ohiko egitasmoa berreskuratu, eta bertsolaritza beste modu batera lantzeko aukera honekin jarraitzea da asmoa, bertsolari eta bertsozaleen harrobia sustatuz, gune eta plaza berriak barneratuz eta molde parte hartzaileak praktikan jarritz.

2024an jokatu da **BARDOAK** taldekako txapelketaren zazpigarren aldia. Oraingoan ere, talde parte hartzaileen herriez gain, beste sei herri batu dira saioak jasoko dituztenen zerrendara, eta bertan izango dira txapelketako sei finalurrekoak. Modu horretan, bertsoa Nafarroako

ahalik eta bazter gehienetara eramateko apustuari eutsi dio Nafarroako Bertsozale Elkartek.

Bere xumean, handia da 2024ko **BARDOAK** egitasmoa. Oraingoan ere anitzak izango dira parte hartzaileak: bertsolariak, gai-jartzaileak, antolatzaileak, sukaldariak... Helduak eta gazteak, herri batekoak eta besteakoak, beteranoak eta hasiberriak, Nafarroako bertso ekosistemarako hauspo eta elkargune izango dira **BARDOAK**.

Irailaren 13an hasi eta urriaren 26ra arte, guztira 20 saio izango ditu taldekako txapelketak. Finala Garesen egingo da, eta lehiatz harago, Nafarroako bertsolaritzaren eta euskal kulturaren festa handia izango da.

Badatoz **BARDOAK** plazara, haien kantua entzunaraziz. Haiekin gozatzeko tenorea da.

Taldeak

A multzoa



Drimtim Iruñea

Bardoak bere plazik hobereana izan duena nahiz eta hurrengo fasera talde bezala inoiz ez den pasa.

Partaideak: Miguel Angel Ortiz de Guzman, Alberto Arce, Oskar Sanz de Acedo, Xabier Terreros eta Unai Uberetagoena.



Assurancetourix Lizarra

Lizarrako bertso eskolako kideek osatutako taldea gara, azken urtetan parte hartu dugun kideekin osatuta funtsean.

Partaideak: Ander Aranburu, Mikel Kolomo, Mikel Pinillos, Aitor Goya, Ekhiot Prieto eta Aitor Irazustabarrena.



Manteleko sobrak Leitza-Altsasu-Barañain

Erratzak elkartu gaituen manteleko sobrak gara. Lau gazte Barañain, Altsasu eta Leitza bertsotarako gozoz.

Partaideak: Beñat Astiz, Ekain Alegre, Hodei Alegre, Eki Mateorena eta Kattalin Lizarraga.





Errimaren matxinatuak Erronkari-Iruñerria

Errokaritik Barañainera, Iruñeatik pasatuz, zabaltzen den matxinada, gure arma bakarra: errima kriminalak!

Partaideak: Ainara Iregi, Jabi Lezaun, Haritz Jamar, Mintxo Astiz, Enma Murillo eta Sarai Robles.



Baztanzopak Baztan

Baztandik heldu gara, eta "zeintekuaq garen jakin nahi baduzu...". Betikoak eta berriak gara. Izaten ahal gara bide bazterreko amapola: zaintzaile, goxo, eder, modox... Baina baita belarri giblean dantzan darabilzun zorri koipetsu hori ere; errimaz eta doinuz irauliko zaitue-na. Saioa akitu ondotik edanen dituzun 100 patxaranek ez dute gu lixeritzeko balio, eta ez gara biharamuneko ibuprofenoak eraginen dizkizun albo-kalteen erantzule eginen. Zoro, zerri, zorri... Zoragarri... Guri bortz. Bozak ongi goratuta igango gara oholtzara: ezinen gaituzo hain aise bihurtu numero, kantari iratzartzen gara goizero-goizero.

Partaideak: Malen Alzuart, Alazne Untxalo, Irati Majuelo, Amaia Elizagoien, Ane Fagoaga, Markel Adin, Maddi Etxebeste eta Lierni Oteiza.



Hor gu! Bortziriak

Bortziritako belaunaldi ezberdinetako emakumeak biltzen dituen taldea. Ahizpatasunez elkar babestuz kantari ariko diren sorginak.

Partaideak: Ekhiñe Zapiain, Maddi Ane Txoperena, Kattin Madariaga, Esti Arozena, Ane Telletxea, Lide Igoa, Uxue Mesa eta Iratxe Muxika.





Pikutara goaz Irurtzun eta periferia

Herri eta belaunaldi ezberdinetako bertsolari eta bertsozaleak batzen dituen taldea gara. Irurtzunek elkartu gintuen, baina orain, etxe finkorik gabe... Pikutara goaz! Ongi pasa nahi duena gurekin etor dadila.

Partaideak: Aitor Irastortza, Julen Bernaldo de Quirós, Joana Ziganda, Endika Legarra, Zigor Gartzia "Zian", Juan Felipe Lizarraga "Ipe" eta Jose Martin Mugiro.



Argako Bixiguak Barañain-Atarrabia

Astero gogor entrenatzen dugu Barañaingo Haizea elkartearen. Bardotan kantu asko ez dugu egingo, baina "kantea" emango dugu seguru.

Partaideak: Mikel Lasarte, Iñigo Aranguren "Pika", Ander Baiano, Martin Berrizbeitia, Patxi Bueno eta Saioa Redin.



Malerreka ez da Baztan Malerreka

Malerrekan osatutako Bardoen taldea. Bertsotan ere bakoitza bere etxekoa, baina arituak eta adituak elkarrekin nahasita.

Partaideak: Iker Gorosterrazu, Egoitz Gorosterrazu, Bittori Elizalde, Gaizka Baigorri, Itxaso Arrieta, Maialen Belarra, Edorta Murua, Irati Agesta, Irati Arrieta, Jon Aldabe, Oier Zulaika, Xabi Garraus eta Xuban Etxegia.



Joiak Sakana

Lau bertsolari sakandar, ongi pasatzeko gogoz.

Partaideak: Idoia Granizo, Jone Rubio, Aitziber Leoz, Oier Lakuntza, Iratxe Legarra eta Olatz Bados.



EzKrashak Iruñerria

Bertsotan, exkaxak; askorentzat, ez-crushak, baina erronka jotzera heldu gara EzKrashak.

Partaideak: Eider Azkoaga, Jon Zendoia, Xabier Ayarza-Marien, Jon Subijana, Josu Sanjurjo, Antton Ciriza eta Saioa Alkaiza.



Pirini Bardo Erroibar

Kuadrila berezia, adin nagusiko baina gazte, sentitzen den jendea.

Partaideak: Sahats Aleman, Itziar Mitxelena, Aritz Gale, Fernando Ziganda eta Iñaki Baraibar.



Mutilatuak Bortziriak-Baztan

Bortziriak eta Baztango mutilek osaturiko taldea gara, denak adin batetik goitikoak izaki, gure heldutasunetik, esperientzia eta bertsoarako gogoak lagun, Bardoak ekimenari gure ukitua emateko prest gaudenak.

Partaideak: Julen Zelaieta, Eneko Fernandez, Patxi Castillo, Urko Gartzia eta Iban Garro.



Saioak

1. Fasea

Lehen fase honetan, multzo bakoitzeko talde bakoitzak bina saio jokatuko ditu, bata etxean eta bestea kanpoan, multzo bereko beste taldeen aurka. 13 taldeetatik, sei igaroko dira hurrengo fasera.

1. ASTEBURUA

LESAKA

Irailak 13 ostirala / Beheko plazan / 19:00etan

Hor gu! – Errimaren Matxinatuak (B multzoa)

SUNBILLA

Irailak 13 ostirala / Ulibeltza Elkartean / 19:30ean

Malerreka ez da Baztan – Pikutara goaz (C multzoa)

LIZARRA

Irailak 14 larunbata / La Bota Peñan / 18:00etan

Assurancetourix – Manteleko Sobrak (A multzoa)

2. ASTEBURUA

OLAZTI

Irailak 20 ostirala / Olaztiko gaztetxean / 19:00etan

Joiak – EzKrashak (D multzoa)

LEKUNBERRI

Irailak 20 ostirala / Lekunberriko Printzan / 19:00etan

Pikutara goaz – Argako Bixiguak (C multzoa)

LEKAROZ

Irailak 20 ostirala / Lekarozko ostatuan / 19:30ean

Mutilatuak – Pirini Bardo (D multzoa)

IRUÑEA

Irailak 20 ostirala / Zaldiko Maldiko elkartearen / 19:00etan

Dimtim-Assurancetourix (A multzoa)

3. ASTEBURUA

IRUÑEA

Irailak 25 asteazkena / LABAn / 19:00etan

EzKrashak-Mutilatuak (D multzoa)

ATARRABIA

Irailak 27 ostirala / Azkena Elkartearen / 19:30ean

Argako Bixiguak-Malerreka ez da Baztan (C multzoa)

ERRONKARI

Irailak 27 ostirala / Errota Elkartearen / 19:00etan

Erimaren matxinatuak – Baztanzopak (B multzoa)

EUGI

Irailak 27 ostirala / Eugiko elkartearen / 19:00etan

Pirini Bardo – Joiak (D multzoa)

LEITZA

Irailak 27 ostirala / Gaztetxean / 18:00etan

Manteleko sobrak – Drimtim (A multzoa)

ERRATZU

Irailak 28 larunbata / Erratzuko elkartearen / 19:00etan

Baztanzopak – Hor gu! (B multzoa)



Finalaurrekoak

Fase honetan, aurreko fasetik sailkatutako sei talde ariko dira, joan-etorriko hiru kanporaketetan. Kanporaketa bakoitzean nagusitutako taldeak pasako dira finalera.

IRURTZUN / Pikuxar Elkartea

Urriak 4 ostirala / 18:30ean

.....
(C multzoko lehena)

.....
(D multzoko lehena)

TAFALLA / Aguazon Peña

Urriak 4 ostirala / 19:00etan

.....
(A multzoko lehena)

.....
(B multzoko lehena)

IRUÑEA / Aldapa Peña

Urriak 4 ostirala / 19:00etan

.....
(D multzoko lehena)

.....
(A, B, C multzoetako 2. sailkatu onena)

ETXAURI / Udaletxea

Urriak 12 larunbata / 19:00etan

.....
(C multzoko lehena)

.....
(D multzoko lehena)

IRUNBERRI / Larrainenea elkartea

Urriak 12 larunbata / 19:00etan

.....
(A multzoko lehena)

.....
(B multzoko lehena)

TUTERA / Beterri

Urriak 12 larunbata / 19:00etan

.....
(D multzoko bigarrena)

.....
(A, B, C multzoetako 2. sailkatu onena)

Finala

Finalurrekoetako kanporaketa bakoitzean nagusitutako taldeak izango dira finalean, 3 guztira. Saio bakarrera jokatuko da finala.

GARES / Gareseko frontoian

Urriak 26 larunbata / 17:30ean

(1. Finalurrekoko irabazlea)

(2. Finalurrekoko irabazlea)

(3. Finalurrekoko irabazlea)

Sarrera arrunta 12 euro, bazkideak 10 euro, eta haurrak 8 euro. Sarrerak **www.bertsosarrerak.eus** webgunean salgai. Baita leihatilan ere, finalaren egunean, 16:00etatik aurrera.



Ayuntamiento de **PUENTE LA REINA**
GARESko Udala

Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Gareseko Udalak elkarlanean antolatutako ekitaldia.

Afaria

Finalaren ostean, afaria izango da. Informazioa, **www.bertsozale.eus** webgunean.



Informazio osoa:
www.bertsozale.eus

BABESLEA:

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua

LAGUNTZAILEAK:



AGUZÓN
UDALAK



PIIKUXAR
EUSKAL TXOKOA



ERRONKARIBARKO
BATZORDE NAGUSIA



Baztango
Udalak



Ayuntamiento de
Esteribar | Esteribarko
Udalak



Malenrekako
Mankomunitatea



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udalak



ETXAURIko Udalak
Ayuntamiento de **ETXAURI**



ATARRABIAKO UDALAK
AYUNTAMIENTO DE VILLAVA

LARRAINENEA ELKARTEA



Ayuntamiento de **PUENTE LA REINA**
GARESko Udalak

ANTOLATZAILEA:



nafarroako
bertsozale
elkartea

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK:



ARGIA



berria erran.
eus



Diario de
Noticias 30
Eres lo que lees - Zer inakurri, hura izan



gaztezulo



ttipi-ttapa



euskalerraiarra
eus